




Urtekaria

Etxerat Elkarte





Etxerat

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
Senide eta Lagunen
Elkartea

AURKIBIDEA

1. Dispertsioaren datuak– Abenduko mapa

- 1.1. Presoak
- 1.2. Trasladoak

2. Osasun eskubidea

3. Dispertsioaren ondorioak

- 3.1. Ezbeharrak
- 3.2. Bisita eskubidearen urraketak
- 3.3. Presoen aurkako urraketa larriak
- 3.4. Senideekiko jazarpena

- 3.4.1. Atxiloketak
- 3.4.2. Zitazioak

3.5. Audientzia Nazionalaren erabakiak

- 3.5.1. Dispertsioaren aurkako lehendabiziko errekurtsioak
- 3.5.2. Unai Bilbaoren kasua: bizitza eskubidearen urraketa

4. Kartzeletako bizi baldintzen okerragotze orokorra

5. Biziarteko kartzela zigorrak - Baldintzapeko askatasunen eskaerak

6. Ikasketa eskubidearen urraketa

7. Bestelako salbuespeneko neurriak

8. Heriotzak

9. Erakundeak

1. DISPERTSIOAREN DATUAK

1.1. Abenduko datoak

Euskal preso politikoen kopurua nahiko apaldu bada ere, (2014 bukaeran, 465 euskal preso politiko baziren 76 espetxeetan), azpimarratu behar dugu askatasun horien gehiengoa kondena bukaerengatik gertatu dela – eta kasu gehienetan kondena luzeak izan direla-. Nabarmendu behar da halere, espetheen zenbakia ez dela txikitu, ezta ere bisitak egiteko batez beste egin behar den kilometroen kopurua.

■ 403 EUSKAL PRESO POLITIKO

400 EUSKAL PRESO POLITIKO 74 ESPETXETAN SAKABANATUTA:

- ▶ 2 EUSKAL PRESO POLITIKO EUSKAL HERRIKO 2 ESPETXETAN
 - ▶ 309 EUSKAL PRESO POLITIKO ESPAINIAR ESTATUKO 45 ESPETXETAN
 - ▶ 87 EUSKAL PRESO POLITIKO FRANTZIAR ESTATUKO 27 ESPETXETAN
 - ▶ EUSKAL PRESO POLITIKO 1 PORTUGALEN
 - ▶ EUSKAL PRESO POLITIKO 1 ITALIAN
-
- ▶ 4 ADINGABEKO EUREN AMEKIN DISPERTSATUAK
 - ▶ 3 EUSKAL PRESO POLITIKO GAIXO LARRI ESPETXE ARINDUAN

1.2. Trasladoak

2015eko urtean, 59 traslado izan dira:

37 estatu espainiarrean
15 estatu frantsesean
5 estatu frantsesetik espainolera
1 estatu espainoletik frantsesera
1 Alemaniatik estatu frantsesera

Urte bukaeran, 2 euskal preso bakarrik Euskal Herriko presondegietan daude, biak larriki eri eta kideetatik isolatuak. Honatx abenduko trasladoak:


Egues Gurrutxaga, Ana Belen (Berrobi) Algeciraseko espetxetik, Cordobara.


Solana Matarran, Jon Igor (Bilbo) Sevillatik Algecirasera.

Perez Aristizabal, Eider (Orereta) Cordobatik Algecirasera.

Iruretagoiena Lanz, Luis (Tolosa) Alençonetik Soto del Realera.

Fleury	Fresnes	Poissy	Villepinte
10 930 Km	8 930 Km	2 950 Km	3 950 Km
Nanterre	Bois d'Arcy	Osny	Reau Sud Francilien
3 930 Km	2 930 Km	3 970 Km	5 930 Km





2. Osasun eskubidea

Espetxeetako baldintzek, etengabeko tensioak eta kondenen luzapenak osasun arazo asko sortzen dizkiete presoek. Jadanik eri zirenak erabat sendatzea ezinezkoa dute, eta osasun ona zutenek patologia ezberdinak garatzen dituzte.

Garbiketa eta janari arazoak, segipen eskasa, konfiantzazko medikuak ikusteko debekua, etengabeko trasladoak, oztopo izugarri handiak dira eremu honetan senide, abokatu eta presoak jarraitzen dituzten profesionalentzat. Horrez gain, euskal presoek aplikatzen zaizkien segurtasun neurri bereziek segipena eta tratamendua are gehiago zailtzen dituzte, kanpoko kontsultak atzeratuz edota galaraziz.

Salatzen ditugun eskubideen urraketa guztiak oso larriak dira, baina eremu honetan muturreko egoetara eramaten gaituzte, oinaze handia sortuz. Balantze honetan 2015eko urtean aipagarriak izan ziren eta kezka handiena sortzen duten kasuak laburbiltzen ditugu.

IOSU URIBETXEBARRIA, ESPETXE POLITIKAREN 2015EKO LEHEN BIKTIMA

Urtarrilaren 16an, Iosu Uribetxebarria zendu zen. 10 urte igaro berri ziren, Puerto de Santa Maria espetxean zela, giltzurrunean berehalako interbentzio kirurgikoa behar izan zuen tamaina handiko tumore bat topatu ziotenetik. 2006ko azaroan, gaitzaren bilakaera zein ari zen izaten kontuan hartuta, abokatuek losuren berehalako askatasuna eskatzea erabaki zuten; 92. Artikuluak aurreikusi bezala. Zazpi hilabete beranduago, 2007 urteko ekainean, epaileak ezezkoa eman zion burututako eskaerari. Hilabete bat beranduago, epaileak, azken erabaki horri abokatuek jarritako errekursoari ere, ezezkoa eman zion. 2010eko abenduan, Mansillako espetxean preso zegoelarik, beste tumore bat antzeman zioten. Tumore horrek, 18 hilabeteetan, bikoiztu egin zuen hasierako tamaina. Gauzak horrela, 2012ko uztailan Iosu ospitaleratu behar izan zuten: bere egoera, oso kaxkarra zelako. Medikuek metastasia zuela baieztatu zuten orduan; biriketan bi tumore eta buruan hiru topatu ostean. 2012ko irailean, me-

dikuek bere egoera terminal moduan definitu ostean, baldintzapeko askatasuna onartu zuen epaileak arrasatearrarentzat. 15 urteko kartzelaldia betea izan arren, fiskalak epailearen erabakia errekurritu egin zuen.

Inoiz ez dugu jakingo zein izango zen benetan gaixotasunaren eboluzioa losu behar bezala artatua izan balitz. Bost urte lehenago kaleratuko zuten baina, zailantzarik ez dugu, hobetzeko aukerak askoz handiagoak izango zirela. Losu eta bere senitarteko zein lagunek urteetako jazarpena pairatu dute berez zaila den egoera, jasangaitza bihurtuz. Fiskalaren informe berrien eskaerei, AVT-k gidatutako onkologo eta medikuen aurkako kanpaina gehitu zitzaion. Auzitegi Nazionalak orduan, losuren aurkako kausa berri bat zabaltzea erabaki zuen, 1986ko gertaera batzuen inguruan eta horrek, baldintzapeko askatasuna bertan behera utzi zuen, minbizia, metastasia eta osasun eskubidearen gainetik. Espetxealdi arindu egoerara, hau da, etxean preso egotera pasatu zen losu.

Bitartean, komunikabideek, erabaki judizial hauek ahalbidetu baino, bultzatu egin zituzten, losuren kontrako itzelezko kanpaina abiatuz. Besteak beste, hila-beteak igaro zituzten argazkilari eta kazetariak losuren etxe atarian, irudi, hitz edo aipuen bila. Hain izan zen gordina losuren kontrako kanpaina, sare sozialetan askatasuna berreskuratu zuen egunetik bizirik zeramatzan egunak zenbatzen zituztela batzuek. Hil baino hiru egun lehenago, losuren aurkako sumario berri bat itxi zuen Auzitegi Nazionalak 29 urteko eskaera fiskalarekin. Ez da zaila losuren senide eta lagunen sufrimendura gerturatzea. Bai maite dugun norbait hiltzeak sortzen duen saminera, baita ekidin zitekeen sufrimendura ere: pairatutako kanpaina mediatiko juridikora. Honen guztiaren gainetik, berriz ere, giza eskubideak defendatzeko erabateko borondatea adierazi zuen gizarteak, bai kaleetan, bai kartzeletan losuren sustenguz sortu zen elkartasun kanpainekin.

GEROZ ETA EGOERA ZAILAGOA IBON IPARRAGIRRE EUSKAL PRESO POLITIKOARENTZAT

Ilbon Iparragirrereren egoera, espetxean gaixotasun larri eta sendaezina izateaz gain, areagotua ikusten da espetxeak ezarritako baldintzengatik. Ibonek C estadioko IHESA du, gaixotasun horretan garatuena. Jakin behar da gaixotasun horren ondorioetako bat dela pairatzen duen leukopatia. Ahuldadea, gaitasun kognitiboen okertzea, ikusmenaren galera eta konbultsioak eragitem ditu. Hala ere, Alcala-Mecoko espetxeak beste kideengandik isolatua mantentzen du. Egoera horretan zegoen 2015eko otsailan preso sozial batek erasotu egin zuten.

Ibon Iparragirre preso ondarrutarra espetxeratze arinduan egon zela gogoratu nahi dugu araudiko 100.2 artikulua arabera, bere gaixotasun larri eta sendaezina zela-eta etxean preso, alegia. 2014ko martxoan bere osasun egoera hobetu ez bazen ere, Ibon preso egonda ere atxilotu eta Basauriko espetxera eramán zuten. Espetxeratu eta 6 astera karga birala okertu zitzaion nabarmen eta defentsek larriki behera egin zioten. Handik gutxira dispertsaua izan zen etxetik 460 kilometrora, Navalcarneroeko espetxera eta hortik Alcalá.

Preso sozialaren eraso dela-eta, beste auzi horregatik epaitu zuten Ibon Iparragirre urrian, eta Basauriko kartzelara ekarri zuten. Urriaren 20an, salaketa ezarri zuen beste presoak agertu ez zelako, euskal presoak absolbitu egin zuen Bilboko epaitegiak baina senideek adierazi zutenenez, bere egoerak okerrera egin du bidaia egiteagatik. Euskal Herrian izan zen egonaldi laburrean zehar (aste-bete), mediku kontsulta batetik igaro zen, baina txeko tekniko batetik gehiago izan zuen hitzordua. Hurrengo egunean inolako abisurik gabe Burgosen zela jakin zuten senideek. Bertako presondegira abiatu ziren famili kideek, ordea, han ez zegoela konfirmatu zuten handik gutxira, eta bere destinoren berririk ez zutela adierazi zuten. Azkenik, Ibon berak egindako dei bati esker berriz Alcala Mecora bidalia izan zela jakin izan zen.

Estatu espainiarrak Ibonekin egiten ari duena ez du izenik. Hiesak eraginda, ikusmena galtzen ari da egunetik egunera, eta krisi epileptikoak ditu, bizkarreko mina eta buruko lesioa ditu. Egoera jasanezin horretan kartzelan mantenduta, bere hurbilekoengandik urrunduta, eta egoera latz hori bakardade handienean sufritzera derrigortuz, pertsona baten biziarekin ari da jolasean gobernu espainiarra, eta oinarrizko eskubide bat era oso larrian urratzen.

IBON FERNANDEZ IRADIRI KONDENAREN SUSPENSIOA UKATU DIOTE

Ibon Fernandez Iradi euskal presoari esklerosi anizkoitza, eritasun larri, degeneratibo eta sendaezina, diagnostikatu zioten 2012an. Orduan egin zen lehen kondenaren suspensioaren eskaera, Kouchner legearen irizpideak betetzen zituela euskal preso honek.

Maiatzan jakin genuen, tira-bira handi batzuen ondotik, Ibon Fernandez Iradiri askatasuna ukatu ziola Frantziako Justiziak, eta horrenbestez espetxean jarraitu beharko duela, eritasun krudel honi aurre egiten. Frantziako legealdiak, "Kouchner" legearen bidez, larriki gaixo dauden presoak aske egoteko eskubidea jasotzen du. Haatik, Pariseko dei auzitegiaren arabera, ezin da jakin Ibon Fernandez Iradiren eritasunak zer bilakaera izango duen. Fernandez Iradiren abokatuak hedabideetan salatu duenez, erabakia onartezina da: eztabaida ez da presondegi barruan artatua izan daitekeen ala ez; eztabaida presondegiko tratamendua kanpoan eskura lezakeen bera den ala ez da. Erantzuna ez da. Abokatuak azpimarratu duenez, epaileak berak onartu du tratamendu horiek ez direla ematen presondegian. Baina epailearen iritziz, kartzelari dagokio irtenbideak aurkitzea. Lannemezango presondegian da Fernandez Iradi, Okzitanian, eta hamabi urte daramatza preso.

Agerian da ze garrantzia duen inguru lasai batek gisa honetako eritasunen kasuan, estres egoeretatik urrun eta pazientearen bizi kalitatearen ez makurtzea

eta agerraldi berriak ez agertzea ahalbidetuko duen elikadura egokia jasoaz. Behar duen tratamendu medikua osasun zentro espezializatu batean jaso behar du, ondorioen jarraipen estua bermatzeko. Aldi berean, izan lezaken eragin psikologikoa ere baloratu behar da; pazientearen konfiantzako profesionalen laguntza eta bere oreka emozionala bermatuko duen inguru egoki bat behar du.

MINBIZIAGATIK EBAKUNTZA IZAN AURRETIK TRATU ANKERRA JASO DU GORKA FRAILE EUSKAL PRESO POLITIKOAK POLIZIAREN ALDETIK

2015eko ekainaren 9an, Badajozeko ospitalean Gorka Fraile Durangoko euskal preso politikoari mingaineko tumorea kentzeko ebakuntza jaso bitartean, tratu anker eta oldarkorra jaso zuen ospitaleko logela batean uneoro zainduta zuten lau polizien aldetik. Ebakuntza bat jaso aurretik beharko lukeen lasaitasun tratuaren aurka, eskuburdinak jarrita izan zituen Frailek kartzelatik ospitalera bidean 07:30etan atera zutenetik (gauean zehar ere), eta zalapartaka aritu zitzaizkion etengabe poliziak egun guztian zehar: mobilaren bidez musika eta bideoak bolumen handian jarritz, paretaren kontra kolpeak emanez eta logelan zegoen edozer iskanbila sortzeko baliatuz. Altzari pieza bat puskatzera heldu ziren ere. Tratua argi eta garbi ankerra izan zen: lasaitasuna lortzen zuela ikusten zuten unean asaldatzeari ekiten zioten poliziek. Tratu krudel horrek zuzenean eragin zion Frailei. Hainbeste, sendiak hura ikustea lortu zuenean egoera oso urdurian topatu zuela Fraile, ebakuntza baztertzeko aukera planteatzeraino, kartzelara berriz eraman zezatela eskatuz.

Horrez gain, sendiak Fraile ikusteko oztopoak jarri zituzten, eta presoa ikustea galarazten saiatu ziren. Abokatuak azaldu zenez, Frailerekin lau orduz (16:00etatik 20:00etara) egoteko aukera izan zezaketen, hori baita preso sozialek izaten duten denbora, baina preso politikoa izanda polizia buruaren esku izango zela ohartarazi zien. Hainbat eztabaiden ondotik, presoarekin egoteko 30 mi-

nutu soilik uzteko agindua zutela esan zioten familiari. Hori dela-eta 10 minutuko tarteetan sartu ziren hiru famili-kideak. Horrez gain, ebakuntza-gelako itxarongelan egoteko eskubidea ere ukatu zioten sendiari goizean.

Goizeko 08:30etan hasi zitzaizkion Fraileri ebakuntza egiten eta lau poliziak ere berarekin sartu ziren ebakuntza-gelara Fraile «zaintzeko». Etxerat Elkarteak prentsaurrekoa eskaini zuen Durangon Gorkaren senideak eta medikuarekin batera ardura ezberdinak zituen tratatu txar hori salatzeko. Bestalde, ebakuntza ondo atera zitzaion Gorka Fraileri.

LORENTXA GUIMON PRESONDEGIAN MANTENDUA ERITASUN LARRI BATEKIN

LLorentxak Crohn eritasuna du, hanturazko heste gaitz kronikoa, 1991tik. 2003an atxilotua izan zen eta 20 urteko kondena dauka. Rennes-eko espetxean dago. Bere kasua aztertu duten adituek diotenez, gaitz-aldi aski latz baten aurrean gaude, 2012-2014 urteekin alderatuz okerrera egin duena. Gainera, horren ondorioz, zorne-jario arazoak ditu, tratamendu zaila dutenak. Tratamendu anitz izan ditu baina eragin handirik gabe, digestio sintomak eta bere kasua aztertu zuen adituaren txosteneko datan agertzen den pisuaren galerak horrela adierazten dutelarik. Gaur egun ez dago sendatuko duen tratamendurik; gehien gehienez, gaitza mugatzea edo ez zorroztea lortuko litzateke.

2015eko martxoan, abokatuek bere baldintzapeko askatasuna eskatu zuten. Azaroaren 24an, eritasunaren larritasunagatik, epaileek onartu egin zuten eskaera hori. Hala ere, estatuaren ordezkariaren den prokuradoreak dei egin zuen, Lorentxaren egoera luzatuz 2016eko otsailan emen behar duten emaitza arte. Medikuen arabera, asko larritu da azken boladan Lorentxaren egoera. Prokuradoreak dei egin zuenetik urtea bukatu arte, 3 alditan ospitalera eraman behar izan zuten.

Une honetan, Lorentxak zainketa mediku zorrotza behar du: sendaketak, farmako egokituak, zorne-jario arazoaren inguruko kirurgia... baina, kirurgia interbentzioaren kasuan, ez presondegiaren erizaindegiak (UCSA) ezta ospitalearen zerbitzuak ez dute beharrezkoa duen zainketa bermatzen. Kirurgiaren ondoko arretarako erizaindegi ekipo espezializatu bat beharko litzateke horretarako, gaur egun ezinezkoa dena. Gainera, kontuan izan behar dugu espetxe administrazioaren funtzionamenduak ikaragarri zailtzen duela paziente hauen presondegiz kanpoko hitzorduak gauzatzea. Izan ere, sendagileek ahal bezain laister egin behar diren frogak agindu arren, hilabete luze pasa daiteke azterketa hauek izan arte. Horrela, Lorentxak hilabeteak pasa behar izan ditu ospitalerako irteerak gauzatu arte, itxaroten eta sufritzen.

Horretaz gain, ospitaleko kanpo kontsultetarako aukerak guztiz mugatuak eta baldintzatuak daude, ospitalerako joan-etorriak indar poliziaren prestasunaren menpe daudelako. Behin baino gehiago gertatu izan da azken orduan hitzorduan huts egitea, indar polizialak agertzen ez direlako. Baldintza hauetan, kontsultak bertan behera uzteak diagnosi eta terapia mailako atzerapenak sorlezkete, honek dakarren ondorioekin Lorentxaren kasuan: osasun mailako aukerak galtzea, arazo infekzioso edo mekanikoen larritzea areagotuz eta heste minbiziaren garapena erraztuz.

***Ikus hurrengo orrian eri diren presoen zerrenda.**

***Ikus ere Etxeraten webgunean Jaiki Hadiren txostena. (www.etxerat.info)**

Eta nola ez aipa, dispertsioak senideen osasunarengan dituzten ondorio larrien azterketa ez dela oraindik egina izan, baina horretaz ere bada asko esateko...

LARRIKI ERI DIREN PRESOAK

1. Josetxo ARIZKUREN RUIZ (Iruñea, 1958) : Kardiopatia iskemiko larria. Kateterismoa: Stent hodi batean.

2. Garikoitz ARRUARTE SANTA CRUZ (Hernani, 1980): Espondilitis Ankilosante, Artralgiak, Aldebiko Errotula Kondropatia, Aldebiko sakroilitisa.

3. Jagoba CODO CALLEJO (Donostia, 1964): Espondilitis Ankilosante B 27negatiboa, pluripatologia koadroa.

4. Iñaki ETXEBERRIA MARTIN (Iruñea, 1964): Miopia Magnoa koriorretinitis miopikoarekin, Eskuineko Begiko Erretina Hemorragia, Ikusmenaren zorrotasunaren galera, bi aldeko Glaukoma.

5. Ibon FERNANDEZ IRADI (Lasarte, 1971): Esklerosi Anizkoitza.

6. Gorka FRAILE ITURRALDE (Durango, 1970): Mingainaren kartzinoma epidermoidea.

7. Aitzol GOGORZA OTAEGI (Orereta, 1975): eboluzio kronikoa eta ezgaitasunezkoa duen Obsesio Konpulsio Desoreka, Desoreka Depresiboa autolisi arriskuarekin.

8. Ibon IPARRAGIRRE BURGOA (Ondarroa, 1973): VIH C-3 estadioko infekzioa, lesio neurologiko garrantzitsuarekin, Enzefalopatia subakutua, laguntza psikologikoa behar izaten du.

9. Jose Ramon LOPEZ DE ABETXUKO LIKINIANO (Gasteiz, 1949): Bradikardia sintomatikoa, Kateterismoa, 2014ko irailaren 19an taupada markagailu bat ezarri zioten, Prostatako adenoma. Zerbikoartrosia: Zerbikalgia. Bialdeko koxartrosia (Ezker aldakako artrosia 2002tik). Koxalgia.

10. Jesus Mª MARTIN HERNANDO (Basauri, 1962): Eskizofrenia paranoidea eta Antsietate Nahasmendu orokortua, Hasiera faseko Nahasmendu Kognitiboa, 2010/09/23an, bakartze erregimena eta egoera oso bortitzak urte luzez pairatu ondoren, zainak mozten saiatu zen. Hori dela eta, Laguntza protokoloa (bere buruaz beste egiteko arriskua dutenei ezartzen zaiena, eguneko 24 orduak lagun baten zaintzapean egon behar direlarik) ezarria du. Paranoia larriak izan ditu, ahotsak entzuten aldiro eta zentzurik gabeko solasaldiak egiten ditu maiz.

11. Lorentxa GUIMON (Angelu): Crohn izeneko gaixotasun larri eta sendaezina pairatzen du 1991. urtean diagnostikatu ziotenetik. Medikuek egin dezaketen gauza bakarra gaixotasuna estabilizatzea da, espetxe barruan ezinezkoa dena.



3. Dispersioaren ondorioak

3.1. Istripuak

2014ko urtean, 10 auto istripu izan ziren. 2015ean 5 ezagutu ditugu, haie-tako 4 apirilan.

Urteko lehen istripua apirilaren 4an jazo zen, Valladolideko (340 km) kartzelan preso dagoen Adur Fernandez euskal preso politikoa bisitatzetik zetorren bere lagun batek Tolosa (Gipuzkoa) inguruan izan zuen. Nekeak eta euriak kotxearen kontrola galdu eta medianaren kontra jotzera eraman zuten. Kolpearen ondorioz beso bat zauritu zuen senideak. Kotxea, zoritxarrez, kaltetua suertatu zen.

Apirilaren 18an, Villenako (720 km) espetxetik bueltan Ismael Berasategi, Gotzon Aranburu eta Lorentxo Ayestaran euskal preso politikoen hiru senide eta lagunak istripu izan zuten. Tuterara iritsi baina 7 km lehenago gertatu zen ez-beharra kotxeak autopistara azaldu zen azeri bat jo egin zuenean. Hiru lagunak ez zuten minik hartu, baina kotxeak higadura handia izan zuen.

Soilik zortzi egun geroago apirileko azken asteburua ilundu zuen bi istripu gertatu ziren, biak 26ean. Lehena, Dueñas-Palentziako kartzelan (300 km) dagoen Oier Lorente euskal preso politikoa bisitatzera joan zen lagun batek izan zuen. Bisita egin ondoren, bueltan, Tolosara iristear zela, ur putzu bat zapaldu eta kotxearen kontrola galdu zuen. Erdiko hesia jo ondoren beste aldeko hesia jo eta bide erdian geratu zen. Oier Lorenteren lagunak kolpe arinak izan zituen, ezer larririk ez. Kotxea berriz, oso kaltetua atera zen.

Egun berean, Maria Lizarraga euskal presoari bisita egin berri zion Xabier Arina preso ohiari gertatu zitzaion beste istripu bat Villenatik (Alacant) bueltan ere. Azpimarratu behar dira Villenako kartzelak (720 km) bisiten inguruan inposatzen dituen baldintzek senideen egoera are gehiago zailtzen dutela. Izan ere, ostiraletan goizeko 10.15etan ala igandetan 18.30tan baino ezin dituzte egin,

oso urrun den kartzela batera joateko gainera, suposatzen duen neke, tentsio, lan arazo guztiekin.

Ekainaren 13an, Valladolidera Gotzon Amaro euskal preso politikoa bisitatzera zihoan lagun batek auto urteko bostgarren istripua izan zuen Palentzian. Kamioi bat aurreratzera joan zenean kotxearen kontrola galdu eta medianaren kontra egin zuen. Zorionez, kalte materialak baino ez ziren izan baina kotxea garabiak eraman behar izan zuen. Seguruak beste auto bat utzi zion eta preso politikoa ikusteko bisita ez zuen galdu.

3.2. Bisita eskubidearen urraketak

EEremu honetako urraketak zerrendatzea ezinezkoa da. Atal honetan ematen ditugun lehengo bi adibideak ikusgarrienak dira.

AITZOL ETXABURUREN SENIDEAK BISITA GABE CLAIRVAUX-KO FUNTZIONARIOEN JARRERAGATIK

Irailaren 26an, Aitzol Etxaburu (Ondarroa, 1979) euskal preso politikoaren izeba-osabak bisita gabe utzi zituzten Clairvaux kartzelako funtzionarioek. Goizeko bederatzieta zuten bisita eta 08:40etarako beharrezko diren nortasun agiriak entregatuta zituzten. Barrura sartzeko deitu zituzten eta detektorera hurbiltzen ari zirela poltsikoetan dirua zuela konturatu zen famili kideetako bat. Bertatik igaro aurretik dirua gordetzeko takilaren giltza eskatu zuen, detektorea eta takilak gela berean baitaude Aitzol preso duten Clairvauxeko kartzelan. Giltza eman beharrean dirua Aitzoli pasa nahi ziotela leporatu eta beste gela batera pasa zituzten. Bi orduz izan zituzten, funtzionarioek zentzugabeko tesi hori, eta senideek behin eta berriro bueltako bidaiarako dirua zela errepikatzen zuten bitartean, jendarmeak iritsi eta komisaldegira atxilotuta eraman zituzten arte.

Dirua kendu eta deklarazioa eta hatzetako aztarnak hartu zizkieten. Hasiera batean, jendarmeez ez zieten dirua itzuli nahi izan, baina bueltarako bidaiarako ezinbestekoa zutela errepikatu zutenean iritziz aldatu zuten. Arratsaldeko ordu biak aldera askatu zituzten. Hiru hilabeteetan bisitarik gabe zigortuko dituztela jakinarazi zieten.

DETENEN A LA COMPAÑERA DE MIKEL KARRERA Y A SU HIJA DE 14 MESES DURANTE UNA VISITA

Reau Sud Francilienko espetxera Mikel bisitatzera zihoazela atxilotu zuten presoaren bikotea unean 14 hilabete zituen bere alabarekin batera. Bi komisaldegitik igaro ostean eta umea zerbitzu sozialekin uztera behartua izan ondoren gauerdian askatu zuten, zitazio batekin eta paper batzuk sinarazi zizkiotela. Umearen motxilan mugikorra ahaztu zuen emakumeak eta funtzionarioek topatzean bisita galarazi zioten Iturriak nahaste bat izan zela behin eta berriz errepikatu bazien ere. Handik gutxira sei polizia agertu eta miaketa integrala egin ondoren ondoko komisaldegira eraman zituzten ama eta umea. Biak banatzeko erabakia transmititu ziotenean haurra titia hartzen ari zela esan zien, eta ez zuela inor inguruan harekin uzteko. Haurra zerbitzu sozialekin geratu beharko zuela adierazi zioten, eta biberioa hartu beharko zuela nahi eta nahiez. Interprete batekin hitz egitea lortu zuenean atxilotua izan zela jakin zuen, nahiz eta akusazioa ez zioten argitu.

Txikiarekin gela batera eraman eta umea miatu zuten berriz, orduko horretan pardela eta guzti kendu ziotelarik. Hasierako interpretearen desberdina zen beste batekin hitz egin zuen eta akusazioa zein zen ordurako ere ez zioten argitu, alabaina, 24 orduko neurria 48ra luzatu zezaketela aipatu zioten. Arratsaldeko 18:00ak arte ez zuen ofiziozko abokaturik, eta itzultzailerik izan. Bitartean, kanpoarekin komunikatzeko arazoak izan zituen eta poliziaren jarrera doilorra izan zen nagusi: familiari ama umearekin zela esan zioten, eta abokatuari ere ziria sartu zioten, komisaldegian bertan azaldu eta Karreraren bikotea han ez zela bota baitzioten. Ondoren, Meluneko komisaldegira eraman zuten eskubur-

dinekin konboi batean, aurretik beste kotxe bat hiru poliziarekin eta sirena joz. Zeldan sartu zuten denbora luzez. Geroko galdeketan egoera horrek Mikel Karreraren bikotea izateari erantzuten ziola aitortu zion poliziak.

Ziegara berriz eramana izan ondoren, ordu erdi eta gero askatu eta umearekin egotea lortu zuen gauerdia aldera.

IBON GOEASKOETXEA PRESOAREN ANAIA SEI HILABETE BISITARIK GABE ZIGORTUA

***Ikus aurrerago, "Presoen kontrako erasoak" puntuan, bere protestaren ondorioz, Ibon Goieaskoetxea jipoitu zuten funtzionarioek**

3.3. Presoen aurkako urraketa larriak

JANA UKATU ZIETEN ANABEL PRIETO ETA SARA MAJARENAS EUSKAL PRESO POLITIKOEI GOIZ OSO BATEAN

Denbora eskatzen egon ostean, ginekologoarengana eramana izatea lortu zuten Aranjuezen dauden Sara Majarenas eta Anabel Prieto euskal preso poli-

tikoak maiatzaren hasieran. Beraiekin, haurdun zegoen preso sozial bat joan zen ere. Normalean, kasu horietan, anbulantzia batean egiten dute bidaia, baina aldi honetan Guardia Zibilaren furgoi batean eraman zituzten, eta baraualdi inposatu batean igaro behar izan zuten goiza, gosaltzen utzi gabe eraman baizituzten, hamaiketakorik ere eramaten ez utziz. Aipatu inposatutako baraualdiak ez zuen inolako zerikusirik medikuaren inolako preskripzioarekin. Ondorioz, emakumeek zorabioak jasan zituzten.

Majarenasen amak azaldu duenez, denbora zeramaten hitzordua eskatzen eta behin lortutakoan horrela tratatuak izatea onartezina da: «Kokoteraino gaude hainbeste urraketekin, animaliak bezala eraman dituzte eta gainera jana ukatu», salatu du Kontxi Ibarretak.

IBON GOIEASKOETXEAK KARTZELAN JIPOITUA FLEURYKO FUNTZIONARIOEN ALDETIK

Apirilaren 23an Fleury-Mérogis kartzelan dagoen Ibon Goieaskoetxea (Gernika) euskal preso politikoak miaketa batean jipoia jaso zuen. Bere anaia bisitan joan zitzion eta Fleury'n bertan zegoenean bisita egitea debekatu zioten. Goieskoetxeak aipatu duenez, debekua bidezkoa ez zela jakinarazi zien lasaitasunez espetxeko arduradunei, "horrelako eraso zuzena" ezin zuela onartu esan zien eta protesta gisa zigor ziegara bere borondatez igoko zela. Miaketa gelan erasotu zuten presoak funtzionarioek. Ostikoak eta buruaren atzean kolpeak jaso zituela salatu du, lepotik lurraren kontra indarrez heldurik zutela, baita esku zein besoak bihurritu zizkiotela ere. Ziegara eskuburdinekin eraman eta bertan ere jipoitu zuten. Erasoak odoletan utzi zuten. Zutitzeko zailtasunak buruarekin pareta jotzera eraman zuen, lurrera eroriz. Ondorioz, bizkar eta sorbaldan ubeldurak sortu zitzaizkion presoari, baita bekokian kolpea eta ebakiak ere.

Honen guztiaren ondotik jakin izan zuen Goieaskoetxeak martxoaren 9tik anaia ikusteko sei hileko debekua ezarri ziotela. Bi anaiek elkar ikusteko debekuaren jatorria ez zitzaien argitu.

3.4. Senideekiko jazarpena

3.4.1. Atxiloketak

2015eko martxoaren 25ean, Nagore Lopez de Luzuriaga eta Izaskun Abaigar Etixerat-eko ordezkariak eta Fernando Arburua eta Oihana Barrios Jaiki Hadi elkarteak atxilotu zituen Guardia Zibilak, euskal presoak eskaintzen zaien asistentzia eta elkartasuna hausteko helburua argiarekin. Hilabete batzuk lehenago abokatuen kontrako operazioaren segida, inolako zalantzarik gabe. Laurak 2 egun ondoren askatuak izan ziren, bakoitza 15.000 euroko fidantzapean.

Prentsaurreko masibo batean, Etxeratek honako adierazpenak egin zituen :

« (...) Duela bi hilabete burututako operatiboak defentsa juridikorako preso ditugun senide eta lagunak duten eskubidearen kontra egin zuen. Atzoko operatiboak oster, osasun eskubidearen kontra egin du, zuzenean, presoek konfiantzazko medikua izateko duten eskubidearen kontra egin baitu. Espainiako estatuaren mendeku gosea beste guztiaren gainetik.

Mendeku politika hori da, orain, gure kontran datorrena. Errepresaliatuen senide eta lagunak kontra. Ezin gaituzte senide izategatik atxilotu baina gure elkarte, gure etxea den Etixerat kriminalizatu dezakete. Ezin gaituzte ixilarazi baina, gure salaketak estaltzen saiatuko dira, gure elkarte deslegitimatzen. Gure giza eskubideak urratu ditzakete, gure eskubideak urratzen dituzte baina, ez dute jendarteak horren berri izatea nahi.

Azken asteetan Etixerat jomugan jartzen ari zirela nabaritu dugu. Etixerat jomugan egon aurretik, presoen eskubideekin konpromisoa zuten beste elkarte eta kolektiboekin bezala, kriminalizazio saiakera martxan zegoen. EAEko Lehendakariarekin bilera ospatu ostean, Bruselara joan ginen Legebiltzarreko europarlamentariei gure egoera zein den azaltzera. Orduan abiatu zen Etixerat kriminalizatzeko kanpaina. Eta atxiloketa hauek izan dira kanpaina horren ondorioz latzena.

Senideak gara. Lagunak gara. Euskal preso eta iheslarien ahaideak gara eta Etixerat da gure elkarte. Hemen antolatu, koordinatu egiten gara. Hemen aurkitzen dugu beharrezkoa dugun laguntza guztia, aholkularitza, elkartasuna eta

Etixeraten, elkar tearen baitan, pairatzen dugun egoerari aurre egiteko indarrak topatzen ditugu. Preso eta senideon kontra aplikatzen duten mendeku politikari aurre egiteko topagunea da elkar tea; espetxe politika anker honek ez doalako bakarrik espetxean daudenena kontra; senideon kontra ere doalako bete betean. 26 urte daramatzate salbuespeneko espetxe politika honekin; mina, samina, eragin nahian. Eta lortzen dute, bai horixe, mina eta samina eragiten dituzte. Baina, horren guztiaren gainetik, senide eta lagunon konpromisoa bakea eta konponbidearekin dago. Gertatu den guztia inoiz errepikatu ez dadin. Inork ez dezan berriz sufritu guri sufritzea tokatzen ari zaiguna (...) ».

3.4.2. Zitazioak

14 SENIDE MADRILEKO EPAITEGI ZENTRALEAN ZITATUAK UZTAILAN

2015eko apirilean, Intxaurrondo eta La Salveko komisaldegietan deklaratzeko Guardia Zibilaren bisita jaso zuten euskal preso politikoen 127 senideek, kartzelan dauden gure senideek euren defentsarako aukeratu zituzten abokatuen kontrako «Mate» deituriko operazioaren eremuan. Euren etxeetan jaso zituzten Guardia Zibilaren bisitak –batzuk kalez jantzita– eta telefono deiak –kasu batzuetan desorduetan–, izutzeko asmo garbiarekin. Zitazio judizialarik gabe ez zirela joanen jakinarazi zuten orduan, Etxeratekin eman zuten prentsaurreko batean.

Ekainan, haietako hamalauk jaso zuten Madrilen lekuko gisa deklaratzeko zitazio judiziala. Madrilera desplazatuz bertako epaitegi zentralean eta zehaztu gabeko arrazoi batengatik uztailaren 7 eta 8an deklaratzera behartuak izan ziren. Elkar teak senideen bizitzan duen paperaren inguruan galdekatu zituzten. Nork antolatzen ditu bidaiak?”, “Nola ordaintzen dituzu bidaiak?”, “Nor egon zen abokatuak kontratatu zenituen unean?”, “Etxerateko norbait zegoen?”... erant-

zun behar izan zituzten galderetako batzuk dira.

Galdeketen astebete lehenago senideei elkartasuna adierazteko eragile ezberdinez osatutako kontzentrazioan (EH Bildu, EA, Sortu, CUP, LAB, Alternatiba, Steilas, Joxemi Zumalabe Fundazioa, EHE, ESK, Elkartzen), euskal preso politikoen abokatuen aurka eramandako "Mate" delako operazioaren markoan kokatu zituen zitazioak Etxeratek. Senideen lekukotzak euren abokatuen aurka erabiltzeko susmoa adierazi bagenuen ere, egiazki, Etxeratek duen paper eta lanaren alorrean zentratuegiak izan ziren gerora, bigarren eguneko galdeketak, bereziki. Uztailaren 1eko prentsaurrekoan adierazi genuenez, horrelako ekintzekin senide eta presoek aurkako "sorgin ehizarekin" jarraitzea baino ez da biltzen, euren bakartzean gehiago estutu: "Garaile eta galtzaileen errelato zentzugabe eta irrealean, harea bota nahi dute senideen gainera, gure existentzia eta oinazea ukatu nahian, iheslariak edo kartzelan dauden gure famili kideak are gehiago bakartuz".

IBARRAKO JAIEN TXUPINAZOA BERTAN BEHERA

Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak eskatuta, bertan behera geratu zen Ibarako (Gipuzkoa) jaien txupina abuztuaren 21ean. Euskal preso politikoen senideek piztu behar zuten txupina herriak, eta ondorioz Udaletxeak, hala aukeratuta. Agerian geratu zen figura horrek gure herrialdearen errealitatearen berririk ez izateaz gain, euskal errepresaliatuen senideen aurkako jarrera beligerantea zuela. Gatazkaren konponbide eta bakearekin konprometitutako pertsona batzuen aurkako jarrera.

3.5. Audientzia Nazionalaren erabakiak

3.5.1 DISPERTSIOAREN AURKAKO LEHEN HELEGITEAK AN-EAN

2015eko urtean, hainbat euskal preso politikok Euskal Herriratuak izateko eskaera egin zuten. Espainiako Presondegiko Zaintza Epaitegi Nagusian apirilean aurkeztu ziren eskaera guztiei ezezkoa eman ondoren, Euskal Herrira hurbilketa erreklamatzaren duten lehen helegiteak Audientzia Nazionalera ailegatu ziren irailaren 25ean, berrikusiak izateko asmoz. Auzitegi honek, blokeka aurkeztuko zituela eskaerak -nahiz eta oso kasu ezberdinak izan, adibidez oso larrikin eriz zen preso batena, 70 urte baino gehiago dituen beste batena...- preso politikoaren senide eta lagunok pairatzen dugun zigor erantsia den dispersio politika berretsi egin zuen.

Hilaren 28an, Juan Karlos Trenor preso politikoak aurkeztutako helegitearen ezezko ebazpen ofiziala baino ez zuten jaso abokatuek, nahiz eta hainbat komunikabidek orotara aurkeztu ziren 20 helegiteen ezezkoaren filtrazioa jaso zuten. Zalantza egoera horretan, Etxerarek prentsaurreko masibo bat burutu zuen dispersioa berresten duen "burugabekeriaz betetako" ebazpena argudio-rik gabe utzi eta berau gaitzesteko.

Donostiako Probintzia epaitegiaren aurrean eta senide zein lagun ugariz lagunduta, Patrizia Belez eta Urtzi Errazkin elkarteko bozeramaleek zigorra etxetik ahalik eta hurbilen betetzea, presoaren eskubideen artean dagoela gogorarazi zuten berriz, baita estatu kide izanik, estatu espainiarrak nazioarteko zuzenbidean jasotzen den arau hori betetzeko duen betebeharra.

Horrez gain, dispersio politika nolabait zuritu nahian edo, ebazpenak ahazten uzten duen datu adierazgarria jarri zuen elkarrekin mahai gainean: Euskal Herritik urrutien dauden kartzelek hartzen dute preso kopuru handiena, eta kopuru hori jaitsi egiten da gure herrira hurbildu ahala. Urrunduak izatearen egoera hori, bestalde, politika arrazoiaren pean atxilotua izaten den edozein euskal he-

rritarrek bizi izaten du, dela prebentiboan zein azkenera zigortua izan, kartze-lako egonaldia hilabete batzuetakoa edo urteetakoa izan.

“Zigor eta xantaia” egoera azpimarratu zuen Etxeratek prentsaurrekoan: “Hori ondorioztatzen da Espainiako Barne Ministroaren etengabeko adierazpenetatik; Dispersioa ETA desagiten denean amaituko da”. Zigor operazio horren hartzaileak senide eta lagunak gara, presoak bezainbeste. Zentzu honetan, ebazpena, senideek inongo epaimahaiak ebatzi ez duen zigorra betetzen jarrai dezaten berrespina da. Hortik, justifika ezina dena justifikatzeko “malabarismo juridiko” horiek. Baita egoera honen “ondorio zorigaiztokoena”, 16 senideren heriotza, eta heriotza horien ardura zuzena. “Espainiar gobernuak mina bilatzen du, eta ardura hori saihestu”. Horrek guztiak betidanik susmatu dugun ondorrora eraman gaitu berriz ere: “Erabakia ez da auzitegiena, gobernuarena baizik. Erabakia, beste hitz batzuetan, ez da oinarritzko eskubideei eragiten dien ala ez, interes politikorik duen ala ez, baizik. Eta erabaki hori da espainiar gobernuak bakearen alorrean eskaini ahal digun guztia. Bakoitzak epai dezala egoera”.

3.5.2. UNAI BILBAO PRESOAREN KASUA: FAMILIA BIZITZA ESKUBIDEAREN URRAKETA

Ebazpen guztietan, argumentu berdinak erabiltzen ditu Audientzia Nazionalak dispersioak eta urrunketak eskubideak ez dituztela urratzen esplikatzeko:

Espetxera desplazatzeko balizko eragozpen baten (adin kontuagatik, osasun egoeragatik edo arazo ekonomikoengatik) aurrean familiartekoek duten egoera espetxeratuak eska ditzakeen ez-ohiko baimenen bidez konpontzen da, haiek espetxe tratamendu hori bazter badezakete ere; kasu horretan, eskubide hori gauzatzeko eragozpenak eta oztopoak espetxeratuaren beraren borondatearen ondorio izango lirateke.

Abenduan, egoera larrian zegoen Unai Bilbao euskal preso politikoaren ama hil zen, bere semea azken aldiz ikusteko aukerarik gabe. Endekapenezko gaixotasun bat zuen eta gorabehera jarraiak, urteak ziren Granadara bidaiatu ezin zuela bere semea ikusteko. Unai, Alboloteko kartzelan preso (860 km), duela bi hilabete zeraman Euskal Herrira eraman zezaten eskatuz. Azkenean, onartu egin zioten eskaera, alabaina, amaren egoerak okerrera egin zuen. Nahiz eta emakumearen egoera oso delikatu zela esaten zuten mediku txostenak izan (denbora gutxi geratzen zitzaiola adierazten zen hauetan), eta Unairen arreba egoeraz informatzeko kartzelara hots egin, presondegiak garrantzia kendu zien ohartarazpenei, eta presoak ondoko asteartera arte handik mugituko ez zela esan zuten. Horretarako datarik zehazten ez zuen Audientzia Nazionalaren erabakia aldatuz, ordura arte handik ez zutela mugituko erantzun zuen bertako zuzendaritzak, eta deia moztu zuten modu txarrean.

4. Kartzeletako bizi baldintzen okerragotze orokorra

2015eko urtean zehar, hainbat borroka piztu ziren espetxe ezberdinetan, gehien-gehiena baldintzen gogortze berrien ondotik. Urraketa ezberdinen aurrean, espetxe horietan dauden euskal preso politikoek beti gogorrak diren borroketan sartzea erabaki zuten, oinarritzko eskubideak defenditzeko. Kasu gehienetan bisiten inguruko urraketak dira, baina bestelakoak izaten ahal dira ere (gaixorik edota isolamenduan dagoen kide baten elkartasunez, erasoak salatzeke, eta abar).

Komunikazioetan ezartzen dizkiguten traba guztiengatik, oso zaila da zerrenda osoa egitea. Hemen joan den ekainan Fleuryn eraman zuten borroka adibide gisa aipatzen dugu, baina badakigu beste espetxe askotan ere holako neurri gogorrak hartzeko behartuak izan ziren euskal preso politikoek, besteen artean : Villepinte, Meaux, Moulins-Yzeure, Mont-de-Marsan... Espainiar estatuan ere, besteen artean, Arantza Zulueta euskal preso politikoak jasan behar duen isolamendu luzea salatzeke, Puerto IIIko euskal presoek hainbat ekimen eraman dituzte.

FLEURYKO ADIBIDEA : EUSKAL PRESO POLITIKO ETA KORTSIKARREN GOSE GREBA

Fleury Merogiseko euskal preso politiko eta korsikarrek gose greba (2. eta 3. dibisioetan) eta patioan blokeo bidezko protestak (1. dibisioan) abiatu zituzten ekainaren 15etik 19ra espetxeko zuzendaritzak modu bidegabean bisitak murriztu eta hilabeteko bi bisita bakarrik ezarri zituelako. Presoek jakinarazi zute-nez, bilera izan zuten D2ko (bigarren dibisioa) euskal preso politikoek eta korsikarrek Fleuryko zuzendari, D2ko buru eta parloir buruarekin (bisiten arduraduna). Idatziz konfirmatu behar zen akordioaren zain, hitzezko hitzarmen batera heldu ziren kartzela eta presoak. Honen bidez, murriztu zitzairen bisita luzea berreskuratu eta uztailetik aurrera lehengo bisiten kopurua izan zuten berri- rriz : hiru bisita luze hilean (bi astean metatzeko aukerarekin) eta hiru labur. Izan ere, hiru urteren buruan erdira murriztu zizkieten bisitak euskal errepresaliatuei, lautik bira.

Gose greba abiatu zuten euskal preso politiko eta korsikarren izenean, Ibon Goieaskoetxeak eta Joseba Iturbidek gutuna idatzi zioten maiatzaren 30ean Fleury Merogis presondegiko zuzendariari, «inolako abisurik» gabe gauzatu zen bapateko aldaketa hau salatuz. Aldaketarik egon ezean, abiatu zuten hasierako janariaren errefuxa utzi eta protesta modu bakezale «erradikalagoak» hartuko zituztela ohartaraziz. Eskutitzak erantzunik izan ez zuenez, errefuxa gose greba bilakatzea erabaki zuten, eta bigarren eta hirugarren dibisioetan aritu ziren aurrera eramaten protesta. Horrez gain, patioetan planteak egin zituzten, hots, ziegetara itzultzera ukatu. Beraiekin, gose grebara batu ziren preso korsikarrak. Astean behin bisita luze bat izateko, duela urte batzuk izandako borroka ekarri zutengogora Goieaskoetxeak eta Iturbidek aipatu gutunean. Horren bidez, hilean lau bisita luze -astean bi bisita pilatzeko aukerarekin- izateko eskubidea erdietsi zuten. Ondoren, kartzelako obra batzuk zirela eta, eta «leku falta» zegoela argudiatuta, hiru bisitara murriztu zituen Fleuryk bisitak, asteburuetakoak mugatuz. Lanak bukatutakoan aurreko egoerara bueltatuko zirela hitz eman zieten presoek aldeztu aurretik. Obrak amaitutakoan kartzelak ez zuen hitza bete, eta euskal preso politiko eta korsikarrek hilean hiru bisita luze izateko akordioarekin (bi asteburuetan eta bat astean zehar) geratu behar izan ziren. Ondotik,

bisitak izateko instalazioen gaitasunak hobetu zirenean eta Fleuryko preso politikoen kopuruak behera egin zuenean, maiatzeko bapateko murrizketa horrekin «larriki zigortuak» ikusi zuten euren burua, kontatzen dute Goeiaskoetxeak eta Iturbidek. Denbora honetan zehar jasan duten «suntsitze arbitrarioak» arrazoirik ez zegoela gaineratu zuten, nahiz eta orduan espetxeak haiekiko izan zuen «muzin» egiteko jarrerak, bertan dauden euskal preso politiko eta korsikarrei nahita egindako eraso bat dela baieztatu zien: «Badakigu jazarpen politikoan oinarritzen den eta gure kondenari ezartzen diozuen familien urruntze politikaren ondorio gehitu bati erantzuten diola honek», idatzi zioten zuzendaritzari. Amaitzeko, erabaki honek Korsika eta Euskal Herriko politikariek, nazioarteak eta preso politikoek eurek ere gatazkaren behin betiko konponketaren bidean eramaten ari diren dinamiken aurka zuzen doazela gaineratzen dute gutunean: «Kartzelak gure aurkako, gure senide eta gure herrialdeetako bake prozesuen aurkako ondorio larriak dituen arduragabekeria erakusten du». Bestalde, dispertsioa salatzeaz gain, Korsikako preso politikoen egoerari elkartasuna adierazten diote, Fleuryra 1.200 kilometrotik gorako distantzia dutela gogoratu.


5. Biziarteko kartzela zigorrak - Baldintzapeko askatasunen eskaerak

Espainiako legealdiak ez bezala, frantses legeak ez ditu irizpide politikoak inposatzen (bereziki damuketaren inguruan) askatasun eskaerak egin ahal izateko. . Haatik, baldintza guztiak bete arren, epaileek argudio politikoak darabilte eskaera hauek ukatzeko.

- Urtarrilan, Josetxo Zeberio euskal preso politikoari onartu zioten lehen eskaera, baina fiskalaren deiaaren ondotik ukatu zioten apirilan (askatua izan zen urrian 11 urte t'erdi egin ondoren, kondenaren bukaeran).

- Oihana Garmendiari ukatu zioten urtarrilan, eta berriz maiatzan berak deia egin ondotik (askatua izan zen abenduan 6 urteko kondenaren bukaeran).
- Itxaso Zalduari ukatu zioten otsailan, eta berriz ekainan berak deia egon ondotik (2005eko martxoan atxilotua, 18 urteko kondena dauka Frantzian).
- Frederic Haranbururi lehen eskaera ukatu zioten otsailan, eta berriz apelan abuztuan (1990eko apirilan atxilotua, bizi osoko zigorra dauka).
- Lorentxa Beyrie-ri irailan ukatu egin zioten eskaera (bigarrena), deiaren zain zegoen urte bukaeran (2001eko abenduan atxilotua, 27 urteko kondena).
- Iñaki Lopez de Bergarari lehen eskaera ukatu egin zioten irailan, deiaren zain zegoen urte bukaeran (2004an atxilotua laugarren aldiz).
- Lorentxa Guimoni lehen eskaera onartu zioten azaroan, daukan eritasun larriagatik. Hala ere fiskalak deia egin zuen. Horren erabakiaren zain zegoen urte bukaeran (2003ko urtarrilan atxilotua, 20 urteko kondena).

Garrantzitsua da Frantziar estatuan ez dela kondena maximorik oroitaraztea. Zigor osoko kondena (« perpétuité ») bildu dutenek baldintzapeko eskaerak egiten ahal badituzte ere, ezerk ez ditu epaileak onartzea behartzen, eta nahiz eta legeak eskatzen dituen baldintza guztiak bete, nahi dituzten arrazoiengatik ukatzen ahal dituzte. Azpimarratu behar da Ipar Euskal Herrian eta Frantziar estatuan duela 26 urte preso diren eta kasu honetan dauden Frederic Haranburu, Jakes Esnal eta Jon Kepa Parot euskal preso politikoen alde piztu dela kanpaina potente bat Bagoaz kolektiboaren eskutik.



6. Vulneración del derecho al estudio

Etixerat elkarteko Ikasketa Batzordeak ikasketak garatzeko orduan presoek dituzten zailtasunak leuntzeko lana egiten du : aholkularitza lana egiteaz gain, ikasteko behar diren baliabideak eskaintzen ditu. Honen eremuan gertatzen diren eskubideen urraketak salatzen ditu ere bai. Batzorde honek oztopo guztien gainetik antolatu zuen 2015-2016 ikasturtera begirako eskaintza, eta berriro ere aurre egin behar izan zion besteak beste euskal preso politikoei Euskal Herriko Unibertsitatean ikasteko duten eskubidearen ukazioari.

Egun, unibertsitate ikasketei dagokionez, 2003. urtetik aurrera, espainiar estatuko espetxeetan dauden presoek ezin dute Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi. Debeku horregatik, espainiar estatuko kartzeletan dispertsatutako presoek UNEDen ikasten dute –zailtasun erantsiekin – Frantzian dispertsatutakoek EHUn ikasteko aukera duten bitartean. Hala, euskal preso politikoei UNEDen ikasteko aukera baino ez diete legezztatzen eta bertan ikasteko baldintzak urtero gogortzen dituzte. Ikasketak espaineraz egin behar izaten dituzte euskal presoek, ikasketa aukera murriztagoa dute eta leku aldaketen menpe daude, hau da, UNEDek ez ditu egoitzak elkarte autonomo guztietako probintzietan. Horrek trasladoa suposatzen du, eta presoek trasladoak tentsioa eragin ohi die: askok esperientzia oso txarrak izan dituztelako traslado horietan. Hori dela-eta, nahiago izaten dute ez mugitu. Horretaz gain, gero eta baldintza ekonomiko zorrotzagoak ezartzen dizkie UNEDek. Adibidez, bigarren karrera doan egiteko aukerarik ez dago: gainditu beharreko kredituen ehuneko altuegia dago, testu liburuak erosi beharra dituzte, eta horregatik, hainbat presok bertan behera utzi dituzte UNEDen egiten ari ziren ikasketak. Hori guztiarengatik, “Euskal presoak Euskal Herriko Unibertsitatean” lelopean, kontzentrazioa burutu zen irailaren 10ean Gasteizko EHUKo letren fakultate aurrean, bertako kurtso berriaren irekierarekin kointzidituz. Aipatutako oztopoen aurrean, bai EHU zein EAEko agintariak agertu duten kezka eza dela-eta, hauek kurtso hasierako ekitaldian duten parte hartzea baliatu zuen Ikasketa Batzordeak kontzentrazioaz egiteaz gain, Jaurialitzaren agintariei eta Unibertsitateko hainbat ordezkari euren ezinbesteko esku hartzea eskatuz.



7. Bestelako salbuespeneko neurriak

KONFINAMENDUA BEZALAKO SALBUESPEN NEURRIEK KANPING DENDA BATEAN LO EGITERA BEHARTU DUTE OIER OA

Salbuespenezko neurriak Oier Oari konfinamendua ezarri eta egun batzuk kanpin denda batean lo egitera behartu du Frantziak

Oier Oa euskal preso politiko ohiak lau urteko espetxe zigorra bete zuen 2015eko apirila hasieran baina aske egon arren, Paris ondoko Saint-Germain-en-Layen udalerrian asignatu zuen Frantziako justiziak, etxetik 800 kilometrora. Handik mugitzeko debekuaz gain, baldintza kaxkarretan egon da. Maiatzaren 19etik Sartrouville herrian konfinatuta egon zen Oier Oa, eta kanpin denda batean lo egitera behartuta. Izan ere, Frantziako Barne Ministeritzak logela bat ordaintzeko ardura hartzen zuela adierazi zion baina Oak bertako baldintzak desagokiak zirela ikusi zuen, batez ere bere ohea ohea zimitzez betea zegoe-lako. Beraz, lo egiteko toki egokirik ez zuela ikusita, Sartrouvilleko parrokiak prestatu zion kanpin denda batean lo egiten egon zen aste batzuk. Hilaren amaieran Sartrouvilleko mugatik kanpo dagoen lur batean karabana bat instalatzeko baimena eskatu zuen euskal preso politikoak gutxieneko bizi baldintzak bermatze aldera, eta baimena eman zioten. Zorionez, ekainaren 5ean jakin izan zen Donostiara itzuli ahal izango dela, bere kasua artxibatu baitu Espainiako Estatuak. Zigorra bete ondoren aske behar zuen Oak, baina asignazioarekin neurri zorrotzak inposatu zizkioten. Konfinatuta dauden pertsonak ezin dute eremu oso mugatu batetik mugitu (bi edo hiru kilometro), poliziaren aurrean egunean hainbat aldiz azaldu behar dira, eta familiarekin bizitza normala izateko duten eskubidea ukatzen zaie eta. Familia ere zigortua da, gora eta behera ibili behar baitira senidea ikusi ahal izateko. Gainera, egoera horretan ezin dute lan egin ezta euren bizitza aurrera atera.



8. Heriotzak

IOSU URIBETXEBARRIA

2015eko urtarrilaren 16an hil zen Iosu Urribetxebarria bere etxean, minbizia-rengatik (ikus lehen partea "Osasun eskubidearen urraketa).

JOSE OLIVA

Jose Oliva Gallastegi (Eibar) iheslari politikoa urriaren 18an hil egin zen Baionan, bihotzeko baten ondorioz. Lagun baten etxean bazkaltzen ari zela gaizki sentitu eta oheratu egin zen, baina larrialdien zerbitzuak iristerako hilik zen. 1980ko hamarkadaren hasieran ihes egin zuen. GALEk Donibane Lohizuneko Consolation ostatuan 1984ko uztailaren 10ean egindako atentatuan zauritua suertatu zen beste bi kiderekin batera. Horren ostean Mexikora joan zen eta urte batzuk ondoren berriro itzuli zen Ipar Euskal Herrira. Geroztik Baionan bizi izan zen. 64 urte zituen.

9. Erakundeak

EUSKAL PRESO POLITIKOEN SENIDE ETA LAGUNEN EGOERA PLAZARATU ZUEN ETXERATEK NAFAR PARLAMENTUAN

Nafar parlamentuaren lansaioan azaldu zen hil honetan elkarteak salbuespeneko kartzela neurriez informatu eta dispertsioa salatzeak. Zentzu horretan, horren inguruan Audientzia Nazionalak ebatzitako azken autoa baloratu zuen elkar-teak, zeinak 19 preso politikoren Euskal Herrira trasladatuak izan daitezen ja-rritako errekurtsioak baztertu ditu. Errukurtsioa baztertu dioten preso horien artean aurkitzen da Iñaki Etxeberria, larriki gaixo den presoak.

Lan saioan alderdi guztiak azaldu ziren, PP salbu. Etxeratek, dispertsioarengatik sortzen den senide eta lagunen egoera larrian, zein politika horren kostu ekonomiko eta psikikoen ondorioetan zentratu zuen bere hitzartzea. Bere aldetik, Jaione Karrera abokatuak, dispertsioaren kobertura legal eza aiaptu zuen. EH Bildu, Podemos, I-E, eta Geroa BAI alderdien tarteeak amankomunean izan zuten dispertsio politikaren gaitzespena, bai eta bere ondorioak kritikatzeko ere. Aitzitik, PP eta UPNk dispertsioa defendatu zuen, nahiz eta ezin izan zuten Etxeratek salatutako oinazea ezbaian jarri.

DISPERTSIAOREN GASTUEN INGURUKO TXOSTENA EMAN DIO ETXERATEK EUSKO JAURLARITZARI

San Inazio omenez Loiolan ospatzen den ospakizunean izan zen Etxerat aurten ere. Eusko Jaurlaritzak hutsik egiten ez duen eguna txosten bat entregatzeko baliatzen du elkarteak, eta hala, aurten, dispertsioak sortzen dituen gastu fisiko, psikiko eta ekonomikoak laburbiltzen dituen informea eman zitzaion Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua den Arantza Tapia eta Markel Olano Gipuzkoako diputatuari.



Etxerat

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
Senide eta Lagunen
Elkartea